

YUKATAN PENINTSULA ETA MAIEN ZIBILIZAZIOA

2000ko azaroko lehen hamabost egunetan Mexiko-ko Yucatán penintsula ezagutzeko aukera izan dugu. Maite eta biok helburu bi genituen hainbeste alditan pentsatutako eta planeatutako bidaia horrekin: Lehenengo eta behin, atsedena hartu nahi genuen. Izan ere, probatu duenak bakarrik daki ezkontzeak zenbat neke eta burukomin ematen dituen eta, beraz, zer-nolako gogoia izaten den egunerokotasunetik alde egin eta deskantsatzeko.

Gure bigarren helburua maien kultura interesgarria ezagutzea zen. Hau da, horrenbeste alditan entzun eta irakurritako milurteko kultura interesgarrira hurbiltzea.

Egiaz, hamabost egun zerbait taxuz ezagutzeko denbora gutxiegi bada ere, motxilak gainean hartuta egindako joan-etorri, solasaldi eta bisitek helburu biak betetzeko aukera bikaina eman digute. Baita berriz lurralde horretara bueltatzeko gogo izugarria sortu ere.

1. Yucatan Penintsula: atsedenerako toki paradisu- tarra

Ertamerikatako Ipar-ekialdeko kostaldean dagoen penintsula honek aukera paregabeak eskaintzen dizkio toki exotiko eta lasaien bila dabilen bidaiariari. Palmeraz betetako hondartza

zoragarriak, turkesa koloreko itsaso gardena, aparteko oiha-
nak, maien arkitektura eta kultura zoragarria, gastronomia be-
rezia, jende aparta... hitz gutxitan esateko ingurune paradisu-
rra da bizitzan geldialdia egin eta atsedena hartzeko.
Azaroaren hasiera, gainera, lurralde hau ezagutzeko momentu-
rik egokiena da; hain zuzen ere, garai hezetik lehorrera pasa-
tzen den unea delako eta harat-honat lasaitasunez ibili eta oro-
grafiaren edertasuna dastatzeko eguraldi hobeagoa izaten dela-
ko (ez bero larregi, ez euri gehiegi).

Ikusteko eta ezagutzeko dauden gauza guztiak agertzea
gehiegizkoa bada ere, aipatzekoak dira Chichen Itza, Uxmal
edo Tulum-eko eraikuntza maiak, nonahi bisitatu daitezkeen
cenoteak (maiek ura biltzeko erabiltzen zituzten ur putzu natu-
ralak), Merida eta Valladolid bezalako hiri kolonialak, animalia,
zuhaitz eta landare bitxiez betetako parke naturalak (Rio
Lagartos, Celestun...) eta, nola ez!, filmetan bakarrik agertzen
diren bezalako hondartzak. Toki batzuk garestiegiak (turistek
ordaindu beharreko zerga!), turistikoegiak eta, beraz, xarma
galduta badute ere (Cancun eta Isla Mujeres, adibidez), kolore,
usai eta nahi beste kontraste duen lurraldea tropikala da; inola
ere defraudatzen ez duena eta ezagutzea merezi duena

2. Maiei buruzko historia laburra

Maia zibilizazioaren lurraldea hiru zatitan banaturik egon da
ohituraz: Iparraldea edo Yukatan penintsula, erdialdea edo
Guatemalako iparraldean dagoen Peten Oihana eta Belize, eta
hegoaldea edo gaur eguneko Guatemalako hegoaldea, Ozeano
Bareraino doana, eta Honduras. Bidaia honetan bakarrik
Mexiko-ko maiengana hurbiltzeko aukera izan badugu ere, he-
rri hau Yukatan penintsula osatzen duten Mexikoko Yucatan,
Campeche eta Quintana Roo estatuetan, Guatemalan eta
Belizen (zenbaitzuk baita El Salvadorren ere) bizi da gaur egun.

Gutxi gora-behera 2000 urte iraun zuen eta Amerikako ga-
rrantzitsuenetakoa izatera iritzi zen zibilizazio honen historian



hiru aro nagusi bereizi ditzakegu: aurreklasikoa (K.a. 200-K.o. 250); klasikoa edo Inperio Zaharra (250-900); eta postklasikoa edo Inperio Berria (900-1500).

Maien zibilizazioaren loraldia 250 urtetik 900 urte arte izan zen, hau da, aro klasikoan eskaini zituzten euren emaitza handienak. Nagusiki Iparraldean eta erdialdean izan zen loraldi hau eta, ondorioz, ingurune honetan daude maien kulturaren eraikuntza garrantzitsuenak.

Besteak beste, oso arkitektura berezia garatua zuten, eta harrizko tenpluak, piramideak, jauregiak, plazak eta pinturaz eta eskulturaz dekoratutako hilobiak (Copán, Palenque, Bonampak, etab.) eraiki zituzten. Aipagarriak ere badira han eta hemen ikus daitezkeen pilota-kantxak. Hain zuzen ere, pi-


lota jokoa (futbolarekin itxura handiago du gure pilota jokoa-
rekin baino) aisialdiarekin lotuta egoteaz aparte, oinarri erlijio-
so sakona zuen maien artean zeren, itxura guztien arabera,
partiduen emaitzek aurrerantzean hirian hartu beharreko era-
bakien norabidea zehazten zuten eta, gainera, galtzen zutenek
heriotza zigorrera kondenatuak izaten ziren.

Aritmetika, idazkera hieroglifikoa (300-500 sinboloduna) eta
365 eguneko eguzki-egutegia (18 hilabete, 20 eta 5 egun bere-
zitan banatua) ere garai honetan kasta erlijiosoaren ekarpen
garrantzitsuak izan ziren.

Postklasikoan, maien zibilizazioak gainbehera egin zuen.
Hala ere, Yukatanen, eta tolteken eraginari esker, irudi geome-
trikoak nagusi zituen pizkundearen garaia ezagutu zuten
(Chichén Itzá eta Mayapán, besteak beste). Hieroglifikoan bi-
dez idazten zuten, eta hauek ulertu ahala jakin izan da zibiliza-
zio honen datu harrigarri asko: zero zenbakiaren erabilera,
Artizarra eta Ilargiaren kokapen eta mugimenduak auresateko
gaitasuna, eklipseak iragartzeko taulak, e.a. Zentzu honetan,
aipagarria da maiak begiratoki astrologikoak eraikitzen zituzte-
la, eta gai hauei buruzko ezagutza oso zehatza zutela.

Oso gizarte hierarkizatuak zituzten, hiri-estatuez osatuak eta
sistema teokratikoan oinarrituak. Gaur egun ikus daitezkeen
hiriak inguruko biztanleentzako gune erlijio, politiko eta eko-
nomikoak ziren, eta bertan buruzagi politiko, ekonomiko eta
erlijiosoak bizi ziren. Bi milioi biztanle izatera heldu ziren be-
rrogei bat hiritan, nagusiak Uxactún, Copán, Bonampak eta
Palenque zirelarik.

Aro postklasikoa edo Inperio Berria (900-1500) pasatu on-
doren, hau da, espainolak Amerikara heldu ziren garaian gutxi
gora behera (K.o. 1500 urte inguruan), euren hiri eta eraikun-
tzak utzi eta oihanean barrena sakabanatu ziren. Badirudi eu-
ren arteko gerrek, ur gabeziek eta merkataritza eta, oro har,
ekonomiaren gainbeherak hainbeste kostatako hiri eta erai-
kuntzak uztera behartu zituztela, eta horrek maien zibilizazioa-



ren hondamendia ekarri zuela. Kolon, Hernan Cortes eta, oro har, espainolekin zetorren arriskua aurrean balute bezala (Gogoratu Hernan Cortésekin azteken inperioa suntsitu ondoren (1519-21) Espainia Berriko erregeorderria sortu zuela (1522) eta milaka indiar hil zirela gaixotasunen eta konkistatzaileen gehiegikerien ondorioz), maiek hainbeste emaitza izan zituen zibilizazioari bukaera eman zioten.

3. Maien genozidioa eta gaur eguneko egoera

Ez dago zalantzarik maien historia genozidioa aplikatu zaion herri baten historia dela, eta horrek eragin izugarria izan duela gaur egun kultura eta herri gisa dituzten arazoetan. Arrazoi asko dauzkagu konkistatzaileek hasi zuten genozidioa gure garaino heldu dela esateko:

Alde batetik, aski ezagunak dira espainolak sartu zirenetik amerindioek eta, beraz, baita maiek ere, jasan duten zapalketa. Mexiko, Guatemala zein Belizeko botere ekonomiko, politiko eta soziala zurien eta mestizoen eskuetan egon den heinean, apurka-apurka maiak euren herrian arrotz bihurtu dituzte, eta milurteko kultura eta hizkuntzen ondorengo izatearen harrotasuna galtzen joan dira.

Bestetik, bizi diren lurraldeetan espainola (Mexiko eta Guatemalan) eta ingelesa (Belize) dira hizkuntza ofizial bakar-rak, eta, urteak joan eta urteak etorri, maia hizkuntzak ahultzen eta hiltzen joan dira. Indartsuen dauden Yukatekoa (Mexiko) eta K'iche (Guatemala) hizkuntzak alde batera utzita, beste hizkuntza gehienak denbora gutxi barru desagertu egingo dira behar bezalako hizkuntza politikak bultzatzen ez badira. Gazteek maia hizkuntzak alboratu eta gazteleraz eta, Belizeren kasuan, ingelesez hitz egiteko gero eta joera handiagoa dute-nez, lurralde hauetako eleaniztasuna desagertzen ari da.

Hirugarrenik, maien artean langabezia-tasa handia dagoela, eta, ondorioz, hiriguneetara bizitzera joateko (Mexiko Hiria munduko hiri populatuena da) zein beste herrialde batzuetara emigratzeko (EEBBetara nagusiki, asko legez kanpoko) joera handia dagoela gogoratu behar da. Bizi duten txirotasunak euren lurralde eta herriak uztera behartzen ditu, euren komunitateen eta, oro har, maien kultura eta hizkuntzen egoera ahulduz.

Honekin batera, kontuan hartu turismoaren sektoreak izugarrizko garrantzia hartu duela lurralde honetan. Antzinako arkitektura eta eraikuntzak mendebaldeko turistentzako oso erakargarriak diren heinean, batez ere Mexiko (Chichen Itza,

Uxmal, Puuc Ruta...) eta Guatemalako gobernuentzat (Peten oihanean dagoen Tikal, Palenke...) diru iturri garrantzitsuak dira. Horrek ingurune horretako ekonomia suspertzen lagundu badu ere, kanpoko jende asko lanera erakarri du, maien identitatea eta hizkuntzak arriskuan jarritz (ezin ukatu guk ere, gure bidaiarekin, horretan parte hartu dugula).

Maiekin egin den genozidioa gureganaino heldu denaren adierazle argiena, dena dela, Guatemalan gertatutakoa da. Hain zuzen ere, Guatemalako gatazka gogorrean, 1960tik 1996ra bitartean izan ziren giza eskubideen kontrako ekintza bortitzak biltzen jardun duen Argitze Historikorako Batzordeak (CEH) Estatuaren agenteek herri maiaren aurka hainbat genozidio ekintza egin zituztela esan du. Era berean, 2000ko abuztuaren 9an ospatu zen Herri Indigenen Nazioarteko Eguna zela eta, Rene Godinez Garcia Kontzientzia Eragozpenerako Gazte Maien Mugimenduko kideak Guatemalan indigenen aurkako diskriminazioa indarrean dagoela eta inoiz gelditu ez dela salatu zuen (*Egunkaria*, 2000-8-11).




4. Maien etorkizuna

Esan esan, argi dago zein izan den hamabost egunetan egindako bidaiaren ondorio nagusia: maien lurralde zoragarria da, baina euren kultura galtzeko arriskuan dago. Mexiko, Guatemala eta Belizeko gobernuek historian zehar euren herrialdeetan aniztasuna suntsitzeko hartu dituzten erabakien ondorioz, maien kultura eta hizkuntzak oso ahulduak daude. Kontuan izan, Mexiko, Guatemala eta Belize estatuetan (gutxi batzuk El Salvadorren ere) maia taldeko 30 hizkuntza aurkitu ditzakegula (Wasteko, Chikomusleteko, Yukateko, Lankandon, Itza', Mopan, Ch'orti' edo Ch'olti' , Ch'ol, Chontal, Tzotzil, Tzeltal, Tojolab'al, Chuj, Q'anjob'al, Akateko, Jokalteko, Mocho', Muchu', Man, Tektiteko, Awakateko, Ixil, Q'eqchi', Uspanteko, Sipakapense, Sakapulteko, Achi, K'iche, Kaqchikel, Tz'utujil, Poqomam, Poqomchi), baina hauetariko asko desagertu egingo direla behar bezalako hizkuntza politikak bultzatzen ez badira. Hobe esanda, hauetariko batzuk ia-ia desagertuzat jo daitezke gaur egun (Chikomusleteko, Lakandon, Itza', Mocho eta Uspanteko hizkuntzak, adibidez).

Ala eta guztiz ere, ez dugu uste dena galduta dagoenik. Mendeetako zapalkuntza, euren identitate kulturalaren ukazioa eta, oro har, genozidioa ezagutu badute ere, bizirik dagoen herri da. Areago, gauzak baikor ikusteko argi-izpi batzuk ere agertzen dira han eta hemen:

Alde batetik, asko dira gaur egun Mexiko eta Guatemalan, baita Belizen ere, euren burua maiatzat agertu eta maia hizkuntzetan hitz egiten dutenak. Zenbait iturriren arabera, 3.500.000 (Ethnologue, 1992) eta beste batzuen arabera 2.000.000 hiztun dituzte gaur egun maia hizkuntzek. Gainera, gauzak txarto egonda ere, gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dira euren kultura eta hizkuntza gordetzearen garrantziaz eta, ondorioz, kultura suspertzearen aldeko gero eta eskakizun eta ekintza gehiago egiten dituzte. Aipatzekoa da, adibidez, Mexikoko *Azteka 13* telebista katean maia hizkuntza erakusten den telebista saioa lortu dutela, eta zenbait irrati ka-



tek ere hizkuntza honetan diharduela. Guk dugunarekin alde-ratuz oso gutxi dela iruditzen bazaigu ere, herri hauen historian aurrerapauso garrantzitsuak dira.

Bestetik, gogoratu behar da 1994. urtean Nazio Askapenerako Armada Zapatistak (EZLN) Chiapas estatuko hainbat hiri eta herri hartu zituela, lurraren erreforma, indiarren eskubideak onartzea eta iruzurrik gabeko hauteskundeak eskatzeko. Chiapasen gertatzen ari dena maien eta, orokorrean amerindiarren egoeraz ohartarazteko presio-hide bat da, eta pentsa daiteke Mexikoko maien egoera hobetzeko balioko duela.

Vicente Fox-ek, PANeko hautagai irabazleak, indiarrekiko begirunea erakutsiko zuela agindu zuen hauteskundeetan. Eskainitako guztiak presidentzia lortzeko aitzakia hutsak izatea gerta badaiteke ere, nahitaez heldu beharko dio Mexikoko indioen auziari. Izan ere, Chiapaseko indioekin dagoen gatazka da gure artean ezagunena, baina egia esan ez da hobea Mexikoko beste estatu batzuetako indioen egoera eta duten

haserrea. Nahitaez, Fox-ek nolabaiteko erantzuna eman behar-ko die indioen eskakizunei bere gobernuarekin arazorik gabe aurrera egin nahi badu.

Azkenik, aipatzekoa da Alfonso Portillo Guatemalako presidenteak onartu egin duela Estatuak giza eskubideen aurkako krimenak egin zituela, eta zin egin duela maien aurka egindako krimenen arduradun zuzenak jazarriko dituela. Maiekiko dagoen zor historikoa ordaindu, eta gauzak bere onera ekartzeko aurrerapauso gehiago ematea nahitaezkoa izango bada ere, zerbait bada estatuak giza eskubideen aurkako krimenak egin dituela onartzea.

Egia esan, gure ustez Guatemalako erreforma konstituzionalen onarpena aurrerapauso handia izan daiteke maientzat. Ondo egiten bada, kultur aniztasuna onartuko da, bai eta maiek politikan esku hartzeko bideak ere; izugarrikeria ugari egin duten inteligentzia gorputz batzuk desegingo dira; eta lege egitura berria planteatuko da, justizia administrazioa berritzeko, zerga erreforma egiteko... Zailtasunak zailtasun, erreforma konstituzionalek lege egitura berria ekarriko dute, eta pentsatu behar da Guatemalako maien egoera hobetu egingo dela. Hala Bedi!

Bibliografia

- Egunkaria (2000-8-11): “Guatemalako Gobernuak gerra zibilean 44 krimenetan parte hartu zuela onartu du”. *Egunkaria*.
- Grimes, F. B. (editorea) (1996): *Ethnologue. Languages of the World*. Summer Institute of Linguistics, Dallas, (13. edizioa).
- Klaudio Harluxet Fundazioa (1997): *Munduko Atlasa*. Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- Klaudio Harluxet Fundazioa (1997): *Hiztegi entziklopedikoa*. Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- Martin, Carlos (1999-5-12): “Guatemalak baietza behar du”. *Egunkaria*.
- Noble, et al. (1998): *Mexico*. Lonely Planet. Australia.

Patxi Juaristi Larrinaga